



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## PRENTSARAKO OHARRA

# **BFF-KO PRESIDENTEAK, HONDARTZAKO FUTBOLEKO LEHENENGO ZELAIA EREGITEKO PROIEKTUA IRAGARRI DAU BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAN**

- **Iñaki Gómez Mardones lehenengo aldiz etorri da Bizkaiko Batzarren aurrera, Batzarretako talde guztiek eskatuta, erakundearen kudeaketea eta etorkizunerako planak azaltzeko.**
- **Euskera, Kultura eta Kiroletako batzorde berean, Lorea Bilbao diputatuak, Guggenheim museoa handitzeko proiektuaren inguruan “ez dagola ezer barririk” adierazo dau.**

*(Bilbon, 2020ko bagilaren 8an).* Iñaki Gómez Mardones Bizkaiko Futbol Federazinoko (BFF) presidenteak gaur iragarri dauenez, bere erakundea hondartzako futboleko Bizkaiko lehenengo zelaia eregiteko idean dabil beharrean. Batzarretako taldeen aurrean egin dauen agerraldian, “Bilboko Udalagaz eta Kirol zuzendaritzagaz” “hartu-emonak” dagozala azaldu dau, “milioi bat euroko” kostua izango leuken kirol azpiegitura eregiteko.

2020-2024 epealdiari jagokon erakundearen lehenengo plan estrategikoan, jasoten diran etorkizuneko proiektuen artean, lurraldeko futbolaren agintariak “futbol ibiltaria” eta “beteranoen futbol” modalitateei emongo jaken bultzadea be aitatu dau. Federazioak epe laburrerako esku artean dituan barrikuntzen artean, Bizkaian “emakumeen futbolerako prestakuntzarako laugarren zentroa” martxan jartea dago. Zentro hori Enkarterriko herriren batean egongo litzateke.

Iñaki Gómez Mardones Bizkaiko Futbol Federazinoko presidentea lehenengoz etorri da Bizkaiko Batzar Nagusietara. Erakundeak urtarilean eskatu eban etortea, aho batez, EH Bilduk egindako eskariaren ostean. Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetzarako hitzarmenak sinatzen ditu federazio horregaz eta, horregaitik, koalizino abertzaleak bertako ordezkari nagusia bertara etortea planteau eban, “federazioaren ildoak, jarduerak eta gauzatzen dituan proiektuak” azaltzeko.

Bere azalpenagaz hasteko, Gómez Mardonesek gogoratuazo dau bera buru dan federazioa “zuzenbide pribaduko” alkartea dala eta, ondorioz, bere erakundeak egiten dauen batzarrean emon behar dituala azalpenak. Dana dala, hori ez da oztopoa izan bere federazioak egiten dauen lanaren balantzea Batzar Nagusietako taldeen aurrera ekarteko. Bere agerraldian, 2020. urtetik 2024. urtera bitarteko epealdia hartuko dauen Bizkaiko federazioaren



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

lehenengo plan estrategikoaren barri emon dau. 2019ko maiatzean hasi eta aurtengo urtarrilean amaitu zan gogoeta prozesuaren ondorioa da. Taldeek dokumentu horren kopia jaso dabe.

Iñaki Gómez Mardonesegaz batera Juan Luis Martín federazinoko mahaikidea etorri da. Emakumeen futbolari emoten jakon laguntzaren eta Zuzendaritza Batzordean emakumeek daukien presentzia urriaren (emakume bakarra 21 kideren artean) ganean galdetuta, Martínek esan dau urtero, benetako lizentzia eta talde kopurua kontuan izanda “jagokona baino diru gehiago bideratzen dala” emakumeen futbolera. Emakumeek erabagiteko organuetan daukien presentziari jagokonez, Martínek esan dau “eurentzat oso pozgarria izango litzatekela emakume gehiago egotea”. “Konbidau egiten jake, baina eurak dira euren denpora horretara bideratu gura ez dabenak”.

Emakumeek Zuzendaritza Batzordean daukien presentzia ia hutsa, azkenengo urteetan “hazkunde garrantzitsua” euki daben emakumeen futbolaren zenbakiakaz kontrajarten da. “Federautako 2.500 fitxa” dagoz, baina oraindino “gizonezkoen 12.543 lizentzietatik” nahiko urrun dagoz. Eskolako kirolari jagokonez, federazinoak “20.624 ume” kontrolatan ditu.

Orokorrean, Mardonesek azaldu dauenez, futbolak Bizkaian dituan alderdien artean aurrekontua banatzeko orduan, ikusi daiteke emakumeen futbolera bideratzen dana “oso-oso zuzena” dala. Ganera, presidenteak, federazinoak ekonomiarene ikuspegitik “oso egoera onean dagola eta taldeen ganean karga txikiena jarten dauena dala” esan dau, “euro bi inguru fitxa bakoetako”.

## GUGGENHEIM MUSEOA HANDITZEA

“Ez dago ezer barririk”. Lorea Bilbao Euskera, Kultura eta Kiroletako foru diputatuak argi eta garbi egin gura izan dau berba Guggenheim Museoa handitzeko proiektuari jagokonez. Elkarrekin Bizkaiak egindako galderari erantzunda, Bilbaok esan dau museoa handitzeko aukerea une honetan “ez dagola mahai ganean”, Covid-19ak sortutako egoerea dala eta. Egoerea “normalizetan danean”, museoaren plan estrategikoaren barruan dagon proiektuari “barrero ekiteko” unea izango da. Dokumentu horrek patronatuaren on eretxia dauka.

## ONARTU EZ DAN ARAUZ BESTEKO PROPOSAMENA

Beste alde batetik, batzordeak ez dau onetsi EH Bilduren arauz besteko proposamen bat. Proposamen horretan, taldeak kulturaren sektoreari laguntzeko hainbat neurri eta “adostasunean eta koordinazioan oinarrituta, bizi



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

dogun ondorioei” erantzungo deutsan “krisi mahai” bat sortzea eskatzen eban. Ekimena ez da onartu, kontrako 9 boto (EAJ-PNV eta PSE-EE), abstentzino bat (PP) eta aldeko 5 boto (EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia) izan ditualako.

Foru Gobernua eusten daben Batzarretako taldeen eretxiz, planteautako neurrietako asko “daborduko martxan dagoz”. Horreen artean, talde biek diru-laguntza nominalak, bestelako diru-laguntzak, kultura arloko tramiteak arintzea, zerga arloko neurriak, mikro-kredituak edo beste administrazio batzuek sektoreari laguntzeko martxan jarri dituen beste neurri orokor batzuk aitatu ditue. Mikel Bagan jeltzaleak adierazo dauenez, neurri horreek “harrera ona” euki dabe, eta ukatu egin dau kultura “bertan behera itzi danik”, azalpenean EH Bilduk planteau dauen moduan.

EH Bilduk, kulturarako “preminazko talkarako plan integrala” planteetan eban bere proposamenean, diru funts espezifiko bideratuz “oinarrizko kultur proiektu txikietara, proiektu sortu barrietara, artista eta sortzaile barrietara eta euskeraz egingo diran proiektuetara”. Horrez gain, administrazioek, erakundeek eta instituzioek, programautako emonaldien “%30” aurretik ordaintzeko eta 2020. urteko tasen ordainketea kentzeko konpromisoa hartzea be eskatzen zan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

# EL PRESIDENTE DE LA FEDERACIÓN VIZCAÍNA DE FÚTBOL ANUNCIA EN LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA EL PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DEL PRIMER CAMPO DE FÚTBOL PLAYA EN EL TERRITORIO

- **Iñaki Gómez Mardones** comparece por primera vez en la Cámara vizcaína, a petición de todos los grupos junteros, para explicar su gestión y los planes de futuro de la entidad.
- En la misma comisión de Euskera, Cultura y Deporte, la diputada **Lorea Bilbao** señala que “no hay novedades” respecto al proyecto de ampliación del Guggenheim.

*(Bilbao, a 8 de junio de 2020).* El presidente de la Federación Vizcaína de Fútbol (FVF), Iñaki Gómez Mardones, ha anunciado hoy que su entidad trabaja en la idea de construir el primer campo de fútbol playa en Bizkaia. En su comparecencia ante los grupos junteros, ha explicado que existen “contactos” con el “Ayuntamiento de Bilbao y la dirección de Deportes” para construir una infraestructura deportiva que conllevaría un coste de “un millón de euros”.

Entre los proyectos de futuro, incluidos en el primer plan estratégico de la entidad 2020-2024, el mandatario del fútbol territorial ha citado también el apoyo a las modalidades de “fútbol andante” y “fútbol de veteranos”. Entre las novedades que maneja la federación a corto plazo está también la puesta en marcha del “cuarto centro formativo para el fútbol femenino” en Bizkaia, que se situaría en alguna localidad de la comarca de Las Encartaciones.

El presidente de la Federación Vizcaína de Fútbol, Iñaki Gómez Mardones, ha comparecido por primera vez en las Juntas Generales de Bizkaia, institución que había pedido su presencia en enero, por unanimidad, a instancias de EH Bildu. La Diputación Foral de Bizkaia suscribe convenios de colaboración con esta federación y, por ello, la coalición abertzale planteaba que su máximo representante acudiera para explicar las “líneas, actividades y proyectos que desarrolla esta federación”.

En su exposición, Gómez Mardones ha recordado primeramente que la federación que preside es una asociación de “derecho privado” y que, como tal, tiene que dar cuenta en la Asamblea, si bien, esto no ha sido obstáculo para que traslade hoy a los grupos junteros un balance del trabajo que hace su federación. En su comparecencia ha anunciado el primer plan estratégico de la



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

federación vizcaína, entre los años 2020 y 2024, una reflexión concluida en enero tras un proceso de reflexión que se inició en mayo de 2019. Los grupos han recibido una copia de dicho documento.

Iñaki Gómez Mardones ha comparecido acompañado de Juan Luis Martín, vocal de la Federación. Preguntados por el apoyo al fútbol femenino y a la presencia escasa de la mujer en la Junta Directiva (una sola mujer entre 21 miembros), Martín ha asegurado que cada año se está “dedicando más dinero que el que le correspondería” al fútbol femenino en función del número real de licencias y de clubs. En cuanto a la presencia femenina en los órganos de decisión, Martín ha dicho que “estarían encantados de contar con más mujeres”. “Se las invita, pero son ellas las que no quieren aportar su tiempo”.

Esta casi nula presencia de la mujer en la junta directiva choca con los números del fútbol femenino que ha tenido “importantes crecimientos” en los últimos años. Existen “2.500 fichas federadas”, aunque aún bastante lejos de las “12.543 licencias masculinas”. En cuanto al deporte escolar, la federación controla a “20.624 niños y niñas”.

En líneas generales, Mardones ha explicado que, del reparto del presupuesto para las distintas facetas del fútbol en Bizkaia, se desprende que lo que se da al fútbol femenino es “tremendamente justo”. Además, el presidente ha hablado de una federación “saneada y la que menos carga a los clubs, apenas dos euros por ficha”.

## AMPLIACIÓN DEL GUGGENHEIM

“Ninguna novedad”. La diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte, Lorea Bilbao, ha querido ser clara respecto al proyecto de ampliación del Museo Guggenheim. A pregunta de Elkarrekin Bizkaia, Bilbao ha dicho que la ampliación del museo “no está encima de la mesa” en estos momentos, debido a la situación generada por el Covid-19. Cuando la situación “se normalice” será el momento de “retomar” un proyecto que está incluido, según ha recordado, en el plan estratégico del museo, documento que cuenta con el visto bueno del patronato.

## PROPOSICIÓN NO DE NORMA RECHAZADA

Por otro lado, la comisión ha rechazado una proposición no de norma de EH Bildu en la que este grupo planteaba diversas medidas de apoyo al sector cultural y la creación de una “mesa de crisis” que respondiera “desde el consenso y la coordinación a las consecuencias” de la misma. La iniciativa ha



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

sido rechazada por 9 votos en contra (PNV y PSE-EE), una abstención (PP) y 5 votos a favor (EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia).

Para los grupos junteros que sustentan al Gobierno foral, muchas de las medidas planteadas “ya se han puesto en marcha”. Entre ellas, ambos grupos han citado las subvenciones nominales, las ayudas económicas, la agilización de los trámites culturales, las medidas tributarias, los microcréditos, u otras medidas generales que otras administraciones han puesto en marcha para ayudar al sector, y que han tenido “una buena acogida”, según el jeltzale Mikel Bagan, quien ha negado que la cultura “esté siendo abandonada” como planteaba EH Bildu en su explicación de motivos.

EH Bildu planteaba en su proposición un “plan integral de choque urgente” para la cultura con un fondo económico específico para “pequeños proyectos culturales de base, los proyectos de nueva creación, los nuevos y las nuevas artistas y creadoras y los proyectos que se desarrollen en euskera”. Además de ello, las distintas administraciones, organismos e instituciones se debían comprometer a abonar un pago adelantado “del 30 %” de las actuaciones programadas y eliminar el pago de tasas del año 2020.